




IPIa %2,4 gutxitu zen maiatzean

Industriaren ekoizpena
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea



Iturria: Eustat.

Maiatzean, Euskadiko industria produkzioa aurreko urteko hil berean baino %2,4 txikiagoa izan zen. Beherakada ekipamendurako ondasunen (-%0,5), bitarteko ondasunen (-%2,4), energiaren (-%10,9) eta, batez ere, kontsumo iraunkorreko ondasunen (-%21,6) bilakaera negatiboak eragin zuen.

Afiliazioen kopuruak igotzen jarraitzen du

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afiliazioa, ekainean, urte arteko %1,6 gehitu zen, aurreko hileko igoera tasa berdinduz. Zehazki, 1.002.954 afiliazio jaso ziren, serie historiko osoko erregistrorik handiena gaintituz. Azken hilabeteetan bezala, emakumeek (%1,9) gizonek (%1,3) baino gehiago parte hartu zuten gorakada horretan.



Langabezia erregistratua %5,6 gutxitu zen ekainean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Ekainean, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %5,6 murriztu zen.

Guztira, 105.400 langabe zeuden, 2008tik ekain batean jaso den kopururik txikiena. Langabezian dauden artean, 44.000 gizonak dira eta 61.400 emakumeak. Era berean, gazteen langabeziaren bilakaera nabarmendu zen (-%6,5), batez bestekoa baino zertxobait gehiago murriztu baitzen.

Euroguneko PMI konposatua 49,9ra jaitsi da

Euroguneko PMI konposatua
Indizea



Iturria: Markit.

Euroaren eremuko ekaineko PMIa 49,9 puntutan kokatu zen, aurreko hileko datua baino 2,9 puntu beherago.

Era berean, zerbitzuak (52,0) moteldu egin ziren, eskaria ahuldu egin zelako, baina sektore horretako enpleguak gora egiten jarraitu zuen.